

## Logoa egokitu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 40. urteurrena ospatzeko

2016/11/02

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 40 urte beteko ditu oraingo ikasturtean. Urteurren hori ospatzeko asmoarekin, fakultateko logoa egokitu eta **ohiko logoaren ondoan, ikur eta testu berri bat jarriko dituzte: 40 urte. 1976-2016. Irakasle Eskola**. Gainera, lelo berezi bat ere erabiliko dute aurtengo ikasturtean: **40 urtean euskal gizartearen eragiten**.



HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEK  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE  
HUMANIDADES Y  
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN



Fakultateko logo ofizialeri gehitu zaio, eskuinean, 40. urteurreneko oroigarria.



Urteurreneko ospakizunekin hasteko, pasa den urriaren 18an, aurkeztu zituzten fakultatearen historia jasotzen duten liburu eta dokumental bat. Bi lan horiek lelo konmemoratiboa hartu dute izenburutzat: **40 urte euskal gizartearen eragiten**. Dagoeneko, lanak sarean daude denon eskura:

- **"40 urtean euskal gizartearen eragiten" liburua PDF formatuan deskargatzeko:** <http://bit.ly/2dcDZJl>
- **"40 urtean euskal gizartearen eragiten" dokumentala ikusteko:** <http://bit.ly/294jK0j>

Baina, logo birdiseinatu, campusak apaindu, eta dokumentala eta liburua argitaratu ez dira izango fakultateak aurtengo egungo dituen ekintza bakarrak. Izan ere, 2016-2017 ikasturtean, eta bereziki udaberrian, ekitaldi ireki ugari antolatuko dituzte. Beste batzuen artean, prestatuko dituzte atzerriko adituekin hitzaldiak, mahai-inguruak, ate ireki ekitaldiak, musika ikuskizunak eta jaiak.

Oraingo Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abiapuntua dauka 1976. urtean; hain zuzen ere, sortu zutenean Eskoriatzako Irakasle Eskola. Erakunde hura jaio zen, besteak beste, erantzuna emateko orduko hezkuntza sistemak zuen erronka handi bati: euskal irakasleak prestatzea. Bi hamarkada Irakasle Eskola moduan egin eta gero, 1997. urtean, MONDRAGON UNIBERTSITATEA sortu zuten Arrasateko Eskola Politeknikoarekin eta Oñatiko ETEO enpresa eta ekonomia eskolarekin batera.